

Etxarrik 700

urte

Zorionak
eta urte
askotarako!




Etxarri Aranatz

b e s t e 7 0 0 b a i e t z !


Herri
Antzerkia

2012ko urriaren 5a



«Izendu ginen,
ga eta izenen ga»





1312•1512•2012...

Izendu ginen,
ga ta izenen ga



ETXARRI ARANATZ: BESTE ZAZPIETAN EHUN BAIETZ (1312-2012)

Etxarri Aranatz, honelaxe, izena eta abizena dituela, 1312an sortu zen, Luis I.a Hutin (Frantziako Luis X.a) Nafarroako eta Frantziako errege zelarik. Ordurarte, Nafarroako Arxibo Orokorreko zenbait dokumenturen arabera, Etxarri baino ez zen, hau da, dorretxea edo etxarria eta Santa Maria eliza.

Gaztelako erregeak Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa bereganatu zituenetik, ohikoak bihurtu ziren lapurretak eta erasoak Aranazko lurralde osoan, Lazkaoko jauntxoaren aldetik bereziki. Honekin batera, makina bat zerga ordaindu behar izaten zizkioten elizari eta erregeari. Horrexegatik, ederki uler daiteke zer-nolako egoera nahasi eta arriskutsua bizi izan zuten Aranatz lurraldeko gure arbasoek.

Ez da harriztekoa, geroz, Nafarroako erregeordeari, Villierseko Enguerrandi, babesa eta abantaila edo pribilegio zenbait eskatu izana, honi ere komeni baitzitzaien lurraldea salbu eta babesturik edukitzea. Horrela beraz, txapel batekin, Etxarri Aranatz sortzearekin, bi buru estaltzeko moduan zen Enguerrand gobernadorea, hau da, Gaztelako erregeari men egiten zioten jauntxoei eta Aranatz lurraldean sortutako ezinegonari aurre egitea. Eta hala egin zuen hark, Aranazko hainbat herri husteko agindua eman Etxarrira bizitzera joateko.

Orduantxe sortu zen Etxarri Aranatz eta bertso-antzerki honekin momentu hori gogoratu nahi dugu.


Zazpitan ehun urte izan dira, dagoeneko, gure herriaren sorrera gertatu zenetik eta, bereziki azpimarratu behar dugu gainera, zazpi mende horietan herri euskalduna izan da. Horrexegatik, hain zuzen ere, Etxarri Aranatz: beste zazpitan ehun baietz jarri diogu izenburu moduan, herriaren asmoa apustu bihurturik, halaxe izatea nahi genukeelako. Beste zazpitan ehun urteren buruan Etxarri Aranatzek eta Sakanak euskaldun jarraitzen badute, ez dudarik izan, Euskal Herriaren etorkizunak ere ez du arazorik izanen, amets honen zilbor, erdigune geografikoa, baita gure lurraldea. Gure arbasoek erakutsitako bideari jarraipen egokia ematen badiogu, zalantzarik gabe, ametsa errealitate bihurtuko da eta euskararen herria, Euskal Herria, lehen aldiz, estaturik gabeko hizkuntza bat izatetik, nortasuna eta izaera ematen dion hizkuntza duen estatua izatera iritsiko da. Ez dezagun alferrikakoa bihurtu, zazpitan ehun urtetan Etxarri Aranatz eta milaka urtetan Euskal Herriko gainerako eremuetan, hainbat eta hainbat euskaldun zintzoen ekina. Jarrai dezagun, beraz, auzolanean, egitasmoak me-rezi du eta.

Izendu giñelakos zarie!

Gios, izaan die!

(Bordazeleiko haritz zaharrak)





BERTSO-ANTZERKIA

Bertso-antzerkia deitu diogu Etxarri Aranazko herritarrek, etxarriarrendako bereziki, baina baita gainerako euskaldunendako eta, besterik gabe, ikusi eta entzun nahi duen edozeinendako ere prestatu dugun ikuskizun honi. Honek, Etxarri Aranatz herriaren sorrera antzeztuko du, zenbait datu historikorekin batera, beste hainbat pasarte asmatutako erabiliz horretarako. Hala ere, azken hauek, asmatuak izanagatik, etxarriarrendako eta euskal herritarrendako oso arrotzak gertatuko ez zaizkigulakoan gaude.

Bertsoak dira nagusi antzerki honetan eta, zenbaitetan, elkarrizketa arruntak ere agertzen dira.

Hamaika agerralditan dago banatua antzerki-lana:

1. **agerraldia:** Agurra eta azalpena. Kokapena
2. **agerraldia:** Inguruaren deskribapena. Aranazko eremuaren edertasuna.
3. **agerraldia:** Aranaztarren harreman ona. San Adriango erromeria.
4. **agerraldia:** Egoeraren deskribapena. Lanak eta zergak. Eultzia.
5. **agerraldia:** Egoeraren okertzea. Lapurren eraso Arañan.
6. **agerraldia:** Arazoen azterketa. Batzarra Mubatsen.
7. **agerraldia:** Ipurzerbitzaria apeza gaztigatzera. Santa Maria elizan.
8. **agerraldia:** Apeza Iruñeako Gortean.
9. **agerraldia:** Gortearen bilera eta erabakia.
10. **agerraldia:** Etxarri Aranatz babesleku. Zenbait herri desagertu.
11. **agerraldia:** Etxarri Aranatz herri euskalduna. Konpromisoa. Himnoa.

Kopla zaharren egitura dute agerraldi bakoitzaren hasierako bertsoek eta bardoak kantatuko ditu. Oso era trinkoan bada ere, agerraldiaren muina edo kontakizun nagusia adieraziko dute. Beraz, hamaika kopla zaharrak irakurriz edo entzunez, antzerkiaren argumentua irakurri edo entzungo da.


Bestalde, gertaera gehienak eta baita elkarrizketa zenbait ere, bertsoetan egingo dituzte aktoreek. 50 kopla, bertso eta jostagarri dira hauek guztiak, neurri eta doinu ezberdinetakoak.

Erabiliko diren doinuak, ondorengoak dira:

- Mikel Laboa: Sorterriko koplak (Eder basoan haritza...)
- "Ttapa-ttipi-ttapo".
- Xenpelar: "Iparragirre abila dela".
- Txirrita: "Pasaiaiko herritik".
- "Maritxu nora zoaz".
- "Boga, boga, mariñela".

Eta, bukatzeko, Etxarri Aranatz herriari eskainitako kantua, himnoa, Etxarri herri kuttun, herriko abesbatzak kantatzeko.

Jose Luis Erdozia
Etxarri Aranatz, 2012ko ilbeltzaren 4a



**Etxarri
Aranatz:**
Beste

zazpietan

ehun.

pajetz



1

1. AGERRALDIA: (AGURRA ETA AZALPENA)

*Gaur zeittubiegu ekarri,
antzerki hontaa, egarri.
Jarri suelto¹ ta aittu zazubie
nola sortu zan Etxarri,
nola sortu zan Etxarri.*

Bi pregoilari agertuko dira pergamino bana eskuetan. Aranaz lurraldeko mapa pantailan.

- Aranazko lurraldieeeeeee!!! -gizonak.
- Mille hiruten ahun da hamabi urtieeeeeee!!!! -emakumeak.
- Illarrazuuu, Lakuntzaaa, Arbizuuu, Maizaaa, Ondaaatz, Mundiñanoou, Unenuuu, Dorrauuu, Nenuuu, Odiagaaa, Adia-Lizarragaaa², Urkizuuu, Mubaaats, Lazkooz, Erdoziaaaa, Lizarraga-Sarriaaa³, Berenarreen, Arañaaa, Arozpideee eta Etxarriiii!!!! -gizonak eta emakumeak, lehena hasiz.
- Etxarri? Nola Etxarri? Beye Etxarri ez zan sortu urtiorren akaberan? -gizonak, harridura nabarmenaz.
- Ba... bei! Arrazoi! Etxarri, guaño, ezan herriye. Santa Maria elize eta etxarriye⁴. Besteik ez !!! -buruaren mugimenduaz okerra aitortuz emakumeak.

¹ Eseri lasai.
² Egungo Lizarraga Ergoienekoa izanen genuke. Lizarraga goikoa.
³ Egungo Lizarragabengo izanen genuke. Lizarraga behekoa.
⁴ Dorretxea, babesleku, "baluarte".

2

2. AGERRALDIA: (PAISAIA IDILIKOAREN DESKRIBAPENA)

*Ingube ederra emen,
begiyendako gozamen.
Hori dala ta Aranazko jendiek
herriyek nunehi han-hemen⁵
herriyek nunehi han-hemen*

Aranaztar bat oinez lurraldea zeharkatuz.

Lehen-lehenik, egurretan aizkorarekin ari den urkizuarrekin egiten du topo:

-Atsaldion! -oinezkoak.

-Beita hiri de! -egurretan ari denak.

-Giro bikeñe dakak egurretan aitzeko! -oinezkoak, atzera berriz.

-Bei, hala dek, bei! Ta aprobetxatu biherra zio, quartu bee etorko dek ta, negube! -lanean ari denak.

Eta jarraian ondorengo bertsoa botatzen du:

Odiagan eta Urkizun

*neguben elurre.
Hale de ez ta falta
nehi aiñe egurre.
Sube piztu ta bertan,
gaztein da txakurre,
holexe nola izen
ezeri bildurre.*

Oinez zihoanak jarraitzen du hitz egiten:

-Arrazoi guzie dakak! Battuk urtiatzuk kanpuen naallela ta gogotan niok herrie allaatu ta ni dee negube prestatzen hasteko. Aiyo ta jo gooti!

-Seyetuko geittuk! Aungi etorri, ba, ta hurren artio! -elkarrizketari amaiera emanaz eta aizkorarekin lanean jarraituz.

Aurrera jarraitzen du txistuka eta nekazariak laiarekin lanean aurkitzen ditu:

-Atsaldion, emakomiek! -oinezkoak.

-Iguualmente , gizona! -lailariiek.

⁵ Edonon.
⁶ Berdin.

-Hau den, hau, lekube! Inguubes gozatzekue! -berriz ere oinezkoak.

-Hoixe beyetz! Sekula santan⁷ ez aspertzeko moukue! -laialari batek

Eta jarraian ondorengo bertsoa botatzen du:

*Hegoaldien Urbasa,
harresi galanta,
mendebaletik arin,
Arakil pertxenta⁸.
Putterrin eta Elkorrin
sarri da auri-tinta
eta altxorra osatzeko,
Berlain xarmanta⁹.*

Oinez zihoanak jarraitzen du hitz egiten:

-Urtiek ttun, bei, ez nittubela hoik guziek gozaten. Biejundayozubiela¹⁰ ta aungi bizi!

-Aungi zio, bei, aiyo! -amaitzeko, laialariek.

Azkenik, bere herriko bidean, txistuka atzera berriz, oinezkoak belardi batean segalriarekin egiten du topo:

-Atsaldion! Beye ze esaten yet, iye- iye gaubon! -oinezkoak.

-Gaubon, bei! Hala etor zikiak gaubetzie, quartu bee! -segalariak.

-Segai gooti eman dook, gios! -oinezkoak, atzera berriz.

-Jakiñe, beye belar melle akaatu ta, aixetu¹¹ biyertien, aldiatia ta bestia beiretzen yondu nok, gustua! -esku-biko eskuak ingurua erakusten duela segalariak.

Eta jarraian ondorengo bertsoa botatzen du:

*Urbasa, Aralar eta Andia,
Beriaingo mendi-tontor.
haran aldien baso-zeleyek,
alkarreki nor beño nor.
Ez ta gertatzen iyor,
horren erabakiyor,
beiretuta nunehan¹².
Ezta batere erreza esaten
ederrena zein otean.*

Oinez zihoanak jarraitzen du hitz egiten:

-Bei, nik dee begiyek liluittuik¹³ zizkobet, iye atsalde guzie ziamabet¹⁴ ta, Aranazko lurraldiau trunketzen¹⁵! Hurren artio !

-Aiyo, bei! Ta nehi deken artio! - agurtzen du segalariak.

3

3. AGERRALDIA: (ARANAZTARREN ARTEKO HARREMAN ONA: SAN ADRIANEN ERROMERIA ETA AUZATEA)

*Bertan uberi bizirik,
alkarreki goza nehirik
herri bati en ezpada bestien,
ezta falta auzaterik¹⁶,
ezta falta auzaterik.*

Aranaztar zenbait iristen ari dira San Adrianera txistua eta danborra- rekin:

-Gora San Adrin! -batek.
-Gora!!! -guztiek.
-Gora aranaztarrok! -beste batek.
-Gora!!! -guztiek.
-Gora gu ta gutarrak! -lehenak, atzera berriz.
-Gora!!! -guztiek.

Eta lazkoztar batek ondaztarrei begiratzuz:

-Heldu diela! Heldu diela! Ondaztar kinkur¹⁷ haundiyoik! Estali ardue!

Ondaztar batek erantzun:

-Bei, aittu zittubau, bei, baselizeko

bi ezkillak. Batek, ttiikinak: “Ez ardo, ez uds¹⁸! Ez ardo, ez uds!; eta bestiek, haundiyek: “Ezta ogiik ee! Ezta ogiik ee! Zimurrok¹⁹, aleen aleenok!

Maizatar batek buruzagiari katilukada ardo eskaten dio:

-Hi, buzei! Bete zak barkilluat, ezta- rriko zaborrak harrotzeko!

-Ez tek, ez, aztapo haundiik izanen, beye tira, yan zak etzeko partes! -buruzagiak erantzun.

Edan bezain laster, maizatarrak erdoziarrari:

Erdoziarrak, kurkubi²⁰, hil ttubiela txakur bi.

Haik jateko, haik jateko, biherko karraska-kirriski²¹, ez takabienes lau maadi!

-Ederra sartu duuzubie! -esaten die erdoziarrei batek.

⁷ Inoiz.
⁸ Poxpolina, liraina.
⁹ Erakargarria, liluragarria.
¹⁰ Bejondeizuela. Norbaiti zerbait onuragarri opatzeko, desiratzeko, erabiltzen da.
¹¹ Atsedean hartu, amasa hartu.
¹² Edonon, non ere han.
¹³ Liluraturik.
¹⁴ Zaramaat.
¹⁵ Gurutzatzen.

¹⁶ Auzo + edate. Udalak doan herritarrei ematen dien ardoa eta jatekoa.
¹⁷ Zintzur.
¹⁸ Ur. Horrela ahoskatzen dute aitona-amiñek, eta uts gainerakoek.
¹⁹ Zikoitz, zeken.
²⁰ Haritzari ateratzen zaion bolatxo. Errimarako erabili da hitz jostagarri moduan.
²¹ Hitz onomatopeikoa, kirrisk-karrask bezala, haragia hortzek puskatzera- koan egindako hotsa.



-Bei, beye guk, pobriek izenaatis, askos hobeki osatzen zittubau ber-subek! -erdoziarrak.

Eta jarraian doinu berberarekin erantzuten dio:

Maizatarrai, txostiko²², txoriyek eman ostiko.

Harren billen, harren billen, ez tau lepahezurra hautsiko, negar mara-mara da aiko.

-Hori dek! Hori dek! Hauxe bei aungi botatako ttapue²³! –emaku-mezko urkizuararak.

Mubastar batek ttilin-bulun²⁴, urki-zuarrari:

-leeeepaaa! -ia lurrera eroriz- Urki-zuarra, hemen habillela hi dee! Laster fan berkueiz firikan-firikan²⁵, ziderrak aurria! -eta barrez hasten da esaldia amaitu bezain laster.

Eta honek erantzun:

-Hago ixilik, fudre²⁶ aleena! Aleen, aleena! Eta jarraian ondorengo bertsoa botatzen du:

Ttapa-ttipi-ttapo²⁷, hau bei gizajua!

Nola demontre izen hik fundementua. Auzate geyenetan galtzen duk burua. Buztiñaki eiñen nitek hi bezelakua.

Zenbait komentario:

-Harrapa yok! -batek.

-Kanta zak guai! -beste batek.

Auzatetik aldentzen dira mutil ataundarra eta neska aranaztarra:

-Amaia ez diñat iñoiz euki zalantza.

-Zertan ai yeiz Iñigo, e yet hartzen antza!

-Yori haizela Elkorriko ta Aranazko poza.

-Hago geldi, txotxolo, ta ezak jaso boza.

Iñigok atzera berriz:

-Nola eongo naun geldi, hire ondoan, panpoxa?

Behar geniken oraintxe biok erabat goza!

-Ba, orduben baakik, gijuezen harira!

Ataun utzi ta etorri gaur Santa Marira.

4

4. AGERRALDIA: (LANAK ETA ZERGAK)

Uzterri, ipuuko ta fale, uzta onaan señale. Aunziye erabat akatziako errege-elizek eskale, errege-elizek eskale.

Herriarrak eultzia amaitzen ari di-rela apezta agertzen da:

'Salve regina', seme kuttunok, eta 'ora pro nobis Deo'. Ezta dudaik aurtengo aunziye ona dezubiela espero. Badakizubie gero, eliza egunero biherretan yoten dala, meza, erresponso ta errosayue ez tie ematen nola-hala²⁸.

Apezari erantzunez erreztatzen dute:

-Xugendilla²⁹ kuuuxkur, aitte ta ama nuun ttuk?

-Errotapien!

-Zeeertan?

-Zotzak³⁰ biiiltzen!

-Zotzak zetako?

-Sube eitteeko!

-Sube zetako?

-Amiñe zarrak biotzeeeko!

-Amiñe zarrak zetako?

-Olluei jana emateeko!

-Olluek zetako?

-Erruteeko !

-Errun zetako?

-Arrontzak apezai emateeko!

-Apeza zetako?

Isiltasuna eta ...:

-Gu ta mundu guzie salbatzeko! – mutil batek.

Apezak buruari eraginez bere atse-gina adierazten du, baina...

-Gu ta mundu guzie izurretzeko! – esaten du neskak.

Apeza fi-ta-fu³¹ joaten da.

²² Hitz jostagarria, errima egiteko.

²³ Bat-bateko erantzun harrigarria, hartzailea aho bete hortz uzten duena.

²⁴ Ikurka-makurka, zutik egon ezinik, mozkorturik.

²⁵ Haizearen soinua imitatuz. Bakaikuarrei egokitutako esaera zaharra da.

²⁶ Ardo gehiegi edaten duenari esaten zaio. Gaztelaniazko "odre"-tik eratorria, seguru asko.


²⁷ Unanuko bertsolari batek ematen zion hasiera horrelaxe hainbat bertsori. Ttapo, bestalde, beti erantzuna, eta ez nolanahikoa, prest duenari egokitzen zaio Etxarri Aranatzten.

²⁸ Edonola, nolanahi.

²⁹ Xegundilla ere erabiltzen da. Sugandila dator hiztegi batuan.

³⁰ Egur xehea, makiltxoa.

³¹ Hitz onomatopeikoa, keinuak eta ufadak dariola.



Atzetik, Etxarriko dorretzeko jauna, ahaltzaina³², ageri da gauza bera eskatuz:

*Atsalde on, lagunok,
biejundaizubiela!
Badirui aurtenguen
auntziye aungi duela.
Zorrak die ordaintzeko,
hitz egin bezela,
biherko nauke ibilli
indderra bestela.*

Ahaltzaina joan bezain laster:

-Aizan hi! Hoik ez ttun arte ones-

kuek³³! -irabiurrarekin dagoenak.

-Bei, gizona! Beye ze uste ye oik? -bahearekin dagoenak.

Eta emakumeak, jarraian, ondorengo bertsoa botatzen du:

*Apezak eta erregiek
laborie bikeñe,
hoiri sekule ez falta
gari o gazteñe.
Nekazariyok beix,
ez taniñe ikeñe
odola xurgetzeko,
hor diau beti izeñe.*

³² Ahaldun, merino, alkate, erregearen ordezkaria.

³³ Arte onekoa ez izan, normala ez izan. Zentzu peioratiboa du.

5

5. AGERRALDIA: (EGOERA LARRITZEN LAPURREKIN)

*Ibei onduen saarra,
moko-mokuen³⁴ harrek harra.
Aranatzen Lazkauko jauntxuek,
soro-aziendak birri-barra³⁵,
soro-aziendak birri-barra.*

*nehi aiñe yamaten.
Zerga eta eraso,
nola eltzekoik ez ten,
siñes, zakube hutsik
ezta tente yoten³⁶.*

Araña herriko biztanleek lazkaotarren eraso pairatzen dute. Etxeetako ondasunak hartu eta hauek, ondoren, erre. Jendea ihesi basora.

Emakume batek buruaz baieztatuz aurrekoarena:

*Erregiek eta jauntxuek
jokatzen debie gordin,
personak eta gauzek
haik tratatu berdin.
Goguen debiena hartu,
guk eitteko malfin³⁷,
ta ez takigu faltako
makiñaat buuko min.*

Lazkaoko jauna eta bere morroia:

-Hustu etxe guztik eta norbaittek aurre eitten badizue, akatu bertan! Eman egurre! –lehenak.

-Alde! Alde hemendik! Agudo! Ez padezue ointxe akatu nahi! –bigarrenak.

Eta, azkenik, gazte batek, aurrekoen auhenak³⁸ ulertuz:

*Egueldi txarra urte ososuen
ta iparraldeti eraso.
Aranaztarrok makal gaitze
geen burube ezin jaso.
Ez tiau guk akaso,
merezi guu arbaso
eta geñakuen bizitze?
Egoera honi buelta emateko
herriyek biher dau hitze.*

-Lagundu ! Mesedes, lagundu!
–Arañarrak.

Erasoaren ondoren, arañarrak bueltan herria barra-barra eginik:

*Aurrekuek gutxi izanik,
zorigeizto baten
ondoriyo, lapurrek*

³⁴ Ageri-agerian, ikusi daitekeela.

³⁵ Hautsiz, hondatuz. Onomatopeikoa da.

³⁶ Etxarri Aranazko esaera zaharra. Zakua hutsik ez da tente egoten! Gorputza, gosearen ondorioz, ahultzen da.

³⁷ Malfin egin, gaizki akabatu, izorratu.

³⁸ Kexu eta intzirriak.



6

6. AGERRALDIA: (BATZARRA MUBATSEN ARAZOA AZTERTZEKO)

*Baso aldien haritze,
zeleyen beix garitze,
lapurrengati aranaztarrak
ezin buutus daitze,
ezin buutus daitze.*

Batzarra hasten da:

-Hau geyeikue dek!
-Ezin yau halakoik onartu!
-Zerbeitt ein bierra zio!
-Hi, beye ze uste ye hoik?
-Eye jaso ber bikor bat ee, hemendi aurria!
-Hoixe ezetz!
-Nehikue dek! Fan daitziela zakurran ipurdie!

Mubatseko herritar bat eskua jasoz:

-Ixo! Ixo! Denok batia ez tiau alkar aittuko39!

-Hala da! Hala da! Hitz ein nehi deenak txanda har zala eta geñakuok errespetatu! Nionek, eskatu hala, emanen duuzubiet hitze! -adin handiko aranaztar batek.

Eta hasieran hitz egin duen mubatarrak, eskua jasorik duela oraindik:
*Aranazko aldien daitze lapurrek,
hairi berdin zer yaman:
gari, olio, hurrek.
Alde bateti die,
Lazkauko zakurrek
eta besteti, beix,
agintai makurrek.*

- Eliza-erregiek.

- Kuinto40 beyetz! Hola hitz eitten dek, holexe! -batzarkide batek.

Txanda-emalea:

-Et-et-et! Gauden, jaun-andriok! Gauden! Txanda eska zazubie hitz eitteko! Txanda eskatu! -esaten du txanda-emaleak jasorik daukan emakumea erakutsiz eskuarekin.

Batzarkideak isildu dira eta emakumeak:

Azienda gobernatu,

*soruek erein, bale,
beye ibilli ta buelta
gui farra ale.
Alkar gettezen denok,
eta ez ein kale,
hoixe izanen beita
nortasun señaile.*

-Hori den! Hori den! -esaten dute batzarkide gehienek.

Adineko beste aranaztar batek:

-Gauden! Gauden! Hola ez tiau gauz onik izenen!

*Hanka ez padiau nehi
beste behin sartu,
konponbidie ez tala hau
bihar diau onartu.
Iruñen jakiñazi
ta erregie guartu
lenbeilen biher deela
etsaye baldartu.*

Aurrekoak amaitu orduko, beste batek:

Antso bat Haundi bestie Azkarra41

*ziela duuzubiet aittu.
Haik bezelexe gualko Luis42,
denak eskubek garbittu.
Euskaldunok serbittu,
hobe ezpagenittu,
ez Naparrun, ez Gaztelan.
Ezan errege-erregiñaik,
Erraldoneki43 Orreagan.*

-Hori dek! Ze errege ta errege ondoko! Hemen ez yau biher ez errege, ez gobernadore, ez mundu44! -beste batzarkide batek.

Legearen ildotik jotzearen alde egin-dakoak, atzera berriz altxatzen du eskua eta, orduan, gazte bat horrela aurreratzen zaio, amaieran hura jotzeko keinua eginez:

*Hemen dakau beste hau
goyen eskuturre,
atzia beix izanen dau
pil-pil kaskezurre.
Hobe dezu ixildu
ta ez sartu muturre,
ez padezu nehi bintzet
hazitzie suurre.*



39 Ados jarri, bat egin.

40 Jakina, noski.

41 Antso III.a Handia eta Antso VII.a Azkarra, Nafarroako erregeak.

42 Luis I.a Hutin, Nafarroako erregea.

43 Nahita dago horrela jarrita, meñatesia eta guzti (erraldoi). Erroldanekin beharko luke bestela.

44 Zerrendaketa batean, ezezko esaldietan, gradazioaren azken maila adierazteko erabiltzen da. "Ez besterik" adierazten du. Gaztelaniako "ni..., ni..., ni ostias".

7

**7. AGERRALDIA:
(IPURZERBITZARIAK⁴⁵ APEZA
GAZTIGATU⁴⁶)**

*Baztarretan adi-adi,
bakarren bat kalakari⁴⁷,
herriyan asmuek aittu orduko
gaztietu apezari,
gaztietu apezari.*

Aitorlekuan agertzen da ipurzerbitzaria:

-Agur Maria grazias betea! -ipurzerbitzariak.

-Halaxe ta Jainkue lagun! -apezak.

-Gaztigatzera heldu nakizu, ni lasaitzeko, demagun.

-Biherko dek jardun hik, eta guzie entzun nik, nehi badek barkamena!

-Barkatu jauna, beye ezta hori, zugana ekarri nauena.

Berehala konturatzen da apeza, ez dela aitormena hara eman duena ipurzerbitzaria eta hasteko esaten dio:

-Aungi ziok, seme! Zer dek, ba, esateko dakakena?

Eta ipurzerbitzariak jarraian:

*Apeza jauna aittu ezazu,
kontatzia nuekizu.*

*Atzo Aranatzaren gaubetze⁴⁸ ona
izen giñu(be)la baakizu.*

*Lakuntza eta Arbizu,
Araña eta Urkizu,*

*beste herriyeki batien,
denon artien erabaitzeko
alkartu zien batzarrien*

Apeza oso haserre:

*Zer dala eta alkartu hittuben
gixetxar⁴⁹ agure ta atso?*

*Ez zikiye, ba, horrelakoik
eziñezkue dala akaso?*

*Ez giñukek nehi jaso,
irain o harrikazo,
bazikiyau ta halakotan,
subek hartuik ibiltzen dienak
ez tiela izeten brometan.*

Salatariak apal-apal:

*Horrexegatik apeza jauna
nehi zeittut iratzartu.*

*Iruñaldien biherko zebien
lenbeilen aungi hausnartu.*

*Ezin zaa lokartu,
nehiz eta ez quartu
egoera ai dala okertzen.*


*Astakeriren bat izenen da,
gosie ez pada atertzen.*

-Bei, seme, bei! Arrazoye dakak! Biyer bertan fan berko niok Iruña Gubernadorieki hitz eittia! -apezak.

-Hala da, bei! Ta argisentieko⁵⁰ atiatzen bazaa, hobe! Ez takit ta ze asmo izenen ttubien astapotruok ! -ipurzerbitzariak.

⁴⁵ Salatari, losintxaria.
⁴⁶ Abisatu, ohartarazi.
⁴⁷ Hitzontzi, kontakatilu.

⁴⁸ Iluntze, ilunabar.
⁴⁹ Gizatxar, dolor, zital, gaizto.
⁵⁰ Egunsenti, goiztiri.



8

**8. AGERRALDIA:
(GORTEAN ERREGORDEA,
SOLDA-DUA ETA APEZA)**

*Egueldiye heze-heze,
usuek arin badueze.
Iruñaldien jakindu debie,
mezu ososue belexe,
mezu ososue belexe.*

Apeza Gortean sartu eta Enguerand gobernadorearen audientzia

eskatzen du:

-Atsalde on, soldadu! Aranazko bikayue nakak ta, lenbeilen, Gubernadore jaunaaki hitz ein bierra zikobet.

-Atsalde on, bikayo jauna! Gubernad



dore jaune beti izeten da lanpetuik ta hobe ziñuke biyer goizien etorko baziñe!

-Ez, ez, ez! Oso gauze larriye dek esan bihera dakatena ta, seguro niok, hala esanda, beleixe hartuko naubela. Esan yok, gios, esan dubetena ta ikuskuek nola berangana yamateko esanen duuken.

Soldadua atera eta berarekin joateko esaten dio bikarioari:

-Guazen barna, bikayo jauna!

Bikarioa Engarranden aurrean:

*Gobernadore Jaun txit argia,
zure aurrera neiz ausartu.
Aranatzen baztarrak ttubie
gixetxar batzuk zabartu.
Biher dezu eskube sartu
ta erabakiye hartu,
noski, aik eta zuzenen.
Jendiek alkartzen segitzen badau
ezta gauza onik izenen.*

Engarrandek:

Hau da, hau, etorriye
dakazuna apez jauna,

hats hartu ezazu eta lasaitu garuna.
Halik eta zehatzen
ein kontakizuna,
bestela ez tuzu izanen
biherrisko oyartzuna.
Apezak, oso urduri, egoera deskribatuz:

Aranazko jendiek
aldatuau balantza,
hamarrena⁵¹ hartzen dau
bailitzan arantza.
Merinoari ere
gauza bera, antza,
ez dobiela emanen,
ez urai zalantza.

Engarrandek:

Aittu dittut zure kezkek,
zure kezkek,
izen biher dittugu, buru hotzak,
buru hotzak,
eta lasaiak.
Hausnartu dezagun
denon artien,
jakittek nola yantzun,
nola yantzun.
Biyer bertan, lasei,
bilduko dittut
apez, apezpiku ta ahaltsei⁵²
apez, apezpiku ta ahaltsei.

⁵¹ Elizari ordaintzen zitzaion zerga. Gaztelaniako "diezmo".

⁵² Ahaltzain beharko luke. Ahaldun hitzaren sinonimoa da. Etxarri Aranatzaren horrela, altsei, garai batean, abere zaintzaile guztien buruari esaten zitzaion. Berak zuen, beste guztien gainetik, ahala edo agindua.

9

9. AGERRALDIA: (IRUÑEAN, EGOERA IKUSIRIK, ENGARRANDEK ERABAKI)

*Guziyondako baatze,
Gari, olo ta babatze.
Aranaztarrak Etxarrin bertan
etxe, azoka ta guatze,
etxe, azoka ta guatze.*

Gobernadorea eta apezpikua:

*Aranaztarrak omen daittze
urduri eta subek hartuik.
Irrintziye aittu eta segiduen
denak yoten die batzartuik.
Hango partaidetzari
egurre eman ugari,
izan dezan eskarmentu.
Hola hurrenguen eiñen debie
nehi ta neyez fundamentu.*

Ahaltzainak erantzun egiten dio:

*Herriyek ezin badau
be frutube jaso,
normalena izeten da
eittie eraso.
Lasei gettezen denok
eta ez egin kaso,
konponbidie ez ta, bada,
helburube akaso.*

Apezak ere, ahaltzainaren ildotik:

*Gaztelako erasuek
izeten die sarri,
eta aranaztarrak
meiz bizi die larri.
Batzuten badetteke,
nehiz eta harrigarri,
bi buru estaltzeko.
txapeltxo bat jarri.*

**Apezaren azken esaera aditu
orduko, atzera berriz :**

*Hoixe bei, arrazoye,
nehi badiau kupittu⁵³,
babesa eskeiñi eta
arazue garbittu.
Hantxe erdi-erdiyen
Etxarrik badittu
nehi aiñe aukera
yaikitzeko "in situ".*

Engarrandek erabakia hartzen du:

*Jakiñik Aranatzen
jendie ein dala jaiki,
herrixkek hustu eta
Etxarri eraiki.
Hauxe erabaki diau
yon zettezie aiki,
mundu guzie zentzatu
eta bizi alaiki.*

10

10. AGERRALDIA:
(ETXARRI BABESLEKU ETA
ZERGARIK GABE)

*Seguro yoteko harresi,
hantxe bizitzen ikesi.
Bertakuendako ez da izenen
zerga bat ere ez kasi,
zerga bat ere ez kasi.*

Apezak ondorengo dokumentua irakurriko du Etxarri Aranazko plazan:

-Entzun, jaun-andriok! Entzun guaix leittuko duzubietena, gu lurralde maittioneen bizimodube erabat aldatu ber dau ta, hemen esaten deenak!- apezak, bigarren pulpitotik ariko balitz⁵⁴.

-Yn nomine Domini, amen! Sepan quantos esta presente Carta veran e oiran que ante nos Engarran de Villers, Gobernador de Navarra venieron vicario de Santa Maria de Echarri et almirat de la susodicha bastida en representacion de jentes de los de la tierra de Arainaz por ellos e por todos los de la tierra de Arainaz et nos requerieron que como una bastida sea en tierra de Arainaz en la frontera de los malechores que es clamada Echarri, la

qual si poblada fuese seria a grant defendimiento et pro de la tierra, et pro et honra de nuestro señor el Rey, et del Reino, que nos tuviesemos por bien de mandarla poblar, et nos Gobernador antedicho veiendo, et entendiendo que la dicha requisicion fecha a Nos por los dichos de la tierra, es justa y suficiente, et otrosi entendiendo que la dicha puebla es a pro et defendimiento de la dicha tierra, et pro del Rey, del Reyno, et habido Consejo et liberacion con muchos hombres buenos et cuerdos tovimos por bien et mandamos que la dicha puebla es en frontera de los malechores por razon que las gentes haian talante de venir a poblarse et fincar en el dicho lugar et par(a) defendimiento de la dicha tierra a requisicion de ellos DAMOS ET OTORGAMOS A LOS POBLADORES DE LA DICHA VILLA DE ECHARRI ESTAS FRANQUEZAS ET LIBERTADES QUE DE PARTE DE IUSO SON ESCRITAS.

-Aungi da, apez jauna! Aungi da! Beye, zer demontre esan nehi dau



leittu dezun horrek? -galde egiten du bertan bildutako batek.

-Ze esan nehi izanen dik, ba, astapotro aleena! Hemendi aurria hemen, Etxarrin, erabat babestuik eta petxaik paatu bierrik pe biziko zariela aranaztarrak! -apezak erantzun.

-Eta zengati ez ttubie guu hizkeran jartzen hoik denak. Auskalo ze geyoo esanen deen larrubortan! -atzera berriz aurrekoak.

-Hi, autzi yok! Holexe trebe geittuk! Hemen seguro yonen geittuk! -esaten du beste batek:

-Bei, ikusko yau hemendi aurria ze demontre gertatzen dan lapurreki! -beste batek.

-Hi, ta geñaa, ez zittubau zergak paatu ber! Hau dek, hau, egoerak

buelta ematie! -hirugarren batek.

Lehen agerraldian gaia aurkeztu duen gizona:

*Mundiño, Maiza, Lazkoz herriyek
auzuei eman izena,
Lazkauko jauntxuen erasuei
aurre eitteko hobena.
Ez Iruñen, ez Zegaman,
ezin dugubie yaman,
urte guzien ereindakue,
lapur zuri eta lapur beltzek⁵⁵
hartu debie zaplastakue.*

Beste batek:

*Guatze, etxe ta harresi
jakiñik dazkagula,
aranaztarrok gaitze
ez pena, ez makula⁵⁶!
Hale de beti harra
buuben ai dakigula,
egiyeskue ote da
holexeko bula!*

⁵⁴ Pulpitotik ariko balitz bezala.

⁵⁵ Lapur ofizialak (zergak jasotzen dituztenak) eta ez-ofizialak (erasotzaileak).

⁵⁶ Orbana, mantxa, arazo.

11

11. AGERRALDIA: (ETXARRI HERRI EUSKALDUNA, KONPROMISOA: beste 7 mende baietz)

Jauntxuek mube Elkorin jarri,
beye ez guteko onargarri.
Euskaldun guzior adiskide
hauxe dezubie Etxarri,
hauxe dezubie Etxarri.

Etarrira bizitzera etorritako neska gazte batek:

Gipuzkun, Araban ta Bizkaian
Gaztelakuek ainddu.
Beste geñako lurraldeetan
Frantziek berdiñe ein du.
Nehi nauke nik jakindu,
eta iyor ez mindu,
zengati hola izen ber dan,
bada gareye libre izeteko
Euskal Herriyen bertan.

-Eta ahaltzainak:

Aurrekuek izen zielako,
izen zielako!
Geittubie errotu etxarriar,
etxarriar!
Beita de auskaltiar⁵⁷!
Ez tiau geyo, sekule,
guk onartuko,
yotie iyoren mende,
iyoren mende!
Auskin, zengati laster
lortuko diau,
bizitzie erabat libre,

bizitzie erabat libre!
Euskal Herria... Gora !
Euskal Herria... Gora !
Euskal Herria !

- ETXARRIKO KOPLAK.

- ETXARRIKO ERESERKIA: Abesbatza.

Etxarri herri kuttun,
bizitoki parebekue!
Babesleku sortu hindubien,
Aranatzen jaun da jabe.
Beriango mendi-tontor,
Urbasa, Aralarko larre,
Putterri ta geñakuen
gozaleku eziñ hobe

leloa

Etxarri! Etxarri!
Erdi-erdiyen hago hi!
Etxarri! Etxarri!
Betiko Euskal Herri!

Leye, sega eta aizkora,
txondarra ta gurdie de.
Sorue, azienda, lantei,
ahizie, onttuek, ze hobe!
San Kiriko, San Adrin, feriyek,
hoik guziek ez eze⁵⁸,
kinkur haundiye asetzeko
makiña bat auzate.

(leloa)

Haritzen, faguen ta erreken
txor-txorren⁵⁹ maitale,
Barga ta Bekobasue
horren adierazle.
Plaza zabala eta
beita Maldakale,
beste zazpi mendetan beyetz,
gotorleku euskaltzale!
Beste zazpi mendetan beyetz,
Euskal Herriko "baluarte"!

(leloa)

ETXARRIKO KOPLAK

Gaur zeittubiegu ekarri,
antzerki hontaa, egarri.
Jarri suelto ta aittu zazubie
nola sortu zan Etxarri,
nola sortu zan Etxarri.

Ingube ederra emen,
begiyendako gozamen.
Hori dala ta Aranazko jendiek
herriyek nunehi han-hemen
herriyek nunehi han-hemen

Bertan uberi bizirik,
alkarreki goza nehirik,
herri batiyen ezpada bestien,
ezta falta auzateik,
ezta falta auzateik.

Uzterri, ipuuko ta fale,
uzta onaan señaile.
Auntziye erabat ein bezin laxter,
errege-elizek eskale,
errege-elizek eskale.

Ibei onduen saarra,

moko-mokuen harrek arra.
Aranatzen Lazkauko jauntxuek,
soro-aziendak birri-barra
soro-aziendak birri-barra.

Baso aldien haritze,
zeleyen beix garitze,
lapurrengati aranaztarrak
ezin buutus daittze,
ezin buutus daittze.

Baztarretan adi-adi,
bakarren bat kalakari.
Herriyan asmuek aittu orduko,
gazitietu apezari,
gazitietu apezari.

Egueldiye heze-heze,
beliek arin badueze.
Iruñaldien jakindu debie,
mezu ososue beleixe,
mezu ososue beleixe.

Guziyondako baatze,
gari, olo ta babatze.
Aranaztarrak Etxarri bertan
etxe, azoka ta guatze,
etxe, azoka ta guatze.


Seguro yoteko harresi,
bertan bizitzen ikesi.
Bertakuendako ez ta izenen
zerga bat ee ez kasi,
zerga bat ee ez kasi.

Jauntxuek mube Elkorin jarri,
beye ez guteko onargarri.
Auskaldun guzien adiskide,
hauxe dezubie Etxarri,
hauxe dezubie Etxarri

57 -tiar atzizkiarekin joera adierazi nahi da, hau da, auskaltiar
= euskaldun, euskalerritar.

58 Ez ezik.

59 Uraren soinua errekan. Onomatopeikoa da.



ZUZENDARI ARTISTIKOA:
Xabier Artieda

ESZENA ZUZENDARIA:
Jose Luis Erdozia

ERREGIDORE NAGUSIA:
Mikel Mundiñano

ERREGIDOREAK:
Manu Gomez, Ander Muñoz, Jon Patxi Arratibel eta Artzai Iraurgi.

IKUS-ENTZUNEN EKOIZLEA:
Oskar Corroza.

KAMARAK:
Amaia Erdozia, Katrin Ginea eta Dani.

ATREZZO:
Sagri Mauleon, Olatz Aldasoro, Kitz Mendiola eta Anaitz Igoa.

ANTOLAKUNTZA:
Amaia Ijurra eta Iñigo Lazkoz.

LIBRETOAREN DISEINUA:
Juan Luis Napal

ANTZEZLEAK

Bardoa: Izaskun Errazkin
Apeza: Jose Luis Maiza
Almirantea: Juanito Erdozia
Pregoilariak: Fausti Razkin, Iker Mariñelarena
Hasierako aranaztarra: Josetxo Artieda
Segalaria: Migel Anjel Erdozia
Laiariak: M^a Kruz Mundiñano, Marian Mundiñano
Aizkolaria: Aritz Goñi

San Adriango erromeria eta auzatea:

Buruzagia: Martin Mundiñano
Lazkoztarra: Mikel Nazabal
Ondaztarrak: Joxe Migel Maiz,
Erdoziarra: Jon Arratibel
Maizatarrak: Aitor Mariñelarena
Urkizuarrak: Olibi Galparsoro
Ttapo: Julen Arratibel
Amaia eta Iñigo: Jone Berastegi, Aritz Igoa

Bi nekazariak:

Lazkaoko jauntxoa: Iña Arratibel
Lapur lazkaotarra: Jonathan Rodriguez
Arañarrak: Fran Urias, Yoli Ormazabal, Julen Arratibel, Susanna Sureda, Artzai Iraurgi, Nerea Saizar
Batzarkideak: Olibi Galparsoro, Iraitz Goñi, Jasone Mendiola, Jon Arratibel, Eneko Lazkoz, Joxe Migel Maiz, Joseba Andoni Beltza, Julen Arratibel, Susanna Sureda
Salataria: Joseba Andoni Beltza
Mehatxaria: Jon Arratibel
Gorteko soldadua: Xabier Ulaiar

KONPROMISOA:

Berta Lerma, Juanito Erdozia
Villiers-eko Enguerrand: Xabi Gartzandia
Apezpikua: Joxe Gartzandia

JANTZIAK

Arduradunak: Naiara Ikobaltzeta eta Fausti Razkin.
Jostunak: Bittori Leitza, Axun Ulaiar, Arazeli Antso, Pili Nazabal, Begoña Mundiñano, Mertxe Ulaiar, Juli Larraza, Elixabete Urkia, M^a Carmen Riestra, Emilia Quesada, Lourdes Artola, Leti Igoa, Javiara Beltza, Josefina Aristorena, Mari Xele Huizi, Loreto Fernandez, Maider Ansa, Anaitz Igoa, Kitz Mendiola, Ainhoa Razkin, Aintzane Gorrotategi.

IRRINTZILARIAK, FALEDUNAK, ABESBATZA.



Publi-

Zita

tea

KONTSULTAGUNEA:

DIETETIKA ETA ELIKADURA:

Ana Carmen Huarte Lakunza
NA 00154 kolegiatu-zenbakia
"Espenentziak ezin dira ez dagoela errezeta magikorik. Ordena eta oreka kontua da dena"
Kontsultera etortzen zaurkidan bezero guztien gustu personalak errespetatzea ezinbestekoa da niretzat. Prestakuntza zabalera dut elikadura arloan —ikasle jarraitzen dut—, eta ondorio batera nahi nintzen: elikadura mota gutxiak egokiak dira baina eta kaloria-ekarpena egokitu badoago puzeraren nutrizio-beharrei. Izan ere, horrela bakarrik erdetsako dugu nik hairbestetan defendatzen duten oreka fiska nahiz mentala.
Eskaera dituzun ezagutzera guztiak aprobetea dituzun ahal den osasun eta zorianotasun gehiena lortzeko"

Kontzeptu horiek errespetatu, honako hauek landuko ditugu:
Dieta terapeutikoak: gizentasuna, kolesterola, hipertentsioa, diabetes, azido urikoa, anemia...
Dieta alternatiboak: disoziatuak, makrobiotikoak, begetarianoak, proteikoak...
Kirol dietak
Anorexia-bulimia
Haurdunaldia eta edoskitzea
Nutrizio-hezikuntza

KIROL MEDIKUA:

Jacobo Vázquez medikua
Kirol osasun azterketa
Diagnostikako eson-tz-proba monitorizatuta, osasuna lortzea helburu duena. Kirolari profesional nahiz zaleentzako. Osasuna eta bai-kalitatea lantzeko helburuarekin eriketa fisikoa egiten duten pertsonentzako. Kirol-fixaon GAI jartea behar duten federatuentzako. Esfortzu-proba lantzekoan, kirol errendimendua lantzeko vedez. Baniar-banako entrenamendu-programa profesionalentzako nahiz astia duen jendearentzako edo federatuentzako. Errehabilitazio aktiboko programak.
Errehabilitazio pasiboko programak eta eskuzko terapia.
Bikar-lantegia (Pilates-a, erulua eta abdominalen zein lumbaren lantzea).

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

Oso klinikekin batera eskaintzako zerbitzuak.

FISIOTERAPIA ZERBITZUA

→ Osteopatia
→ Akupuntura



ESTETIKAGUNEA:

Estetika alorrean une honetan dagoen teknologia aurreratuena erabiltzen ari gara. Edozein tratamendu aukeratu aurretik diagnostikoa egingo dugu beti.

AURPEGIKO TRATAMENDUAK:

Kabinan egindako tratamendua eta etxean egindako lana oso garantzatsuek direla azpimarratuko dugu.
- Aurpegiko garbiketak
- Gatzete-tratamenduak, orbanak, aknea, biguntasuna, mikrobari-zeak.
- Begi-ingurua.
- Lepoa eta bularraldea
- Orbanak

GORPUTZ TRATAMENDUAK:

- Gorputz estofazioa "gorputz garbiketa"
- Tratamendu erreduzitzaileak, zelulitisaren aurkakoak, bizigarriak, hidratatzaileak...
- Drainaje linfatikoak: hanken pisutasuna, likidoen eliminazioa, zirkulazioaren aktibazioa.
- Lanuzaleko idioak
- Bularrak
- Kabitazioa
- Uhin akustikoak
- Plataforma bibrakorra.

DEPILAZIOAK:

- Argizaria
- Kapribuzko argizaria (bokolata, gerezia, oliokoak, gatzekoak...)
- Depilazio elektrikoak
- Laser-depilazioa

EGUZIFRIK GABEKO BRONITZETATZEA:

- Aurpegia eta gorputza.

ESKUAK:

- Bainua eta estofazioa
- Hidratazio-tratamendua (masaje hidratatzailea barne), bizkortzea, orbanak.
- Manikura arrunta (apaintzea eta makillatzea)
- Manikura osoa esmalte iraunkorarekin edo normalarekin (bezeroak aukeran).
- Aza-kalen apaintzea.

QINAK:

- Bainua eta estofazioa
- Tratamendu hidratazioarekin (gogorriguneak kentzea). Masajea barne.
- Pedikura sinplea: apaintzea eta makillatzea.
- Pedikura osoa esmalte iraunkorarekin edo normalarekin (bezeroak aukeran).

SPA TRATAMENDUAK:

- **Txokolate Zuriaren eta Arrosen errituala:**
Uki desberdinak nahastean dituen erritual horrek azala eta zentzumenak suspertzen dituzki, aldi berean hordigarria eta gozoa den usaina eta zeta antzeko ukimena utzi. (Gorputzean nahiz aurpegian eman daitezke).

- **Jengibrearen eta limaren errituala**
Fruta-usan freskoekin egindako erritualari esker, gure azala berritu, eta leun eta gatzte ibura hartuko du.

- **Indian Natural errituala:**
Nabardura energetikoz eta izen idatzirik gabeko sententziaz beteriko erritual horrek lurrun-notak piztuko dituzki azalaren, gure amasa lantzeko.

- **Kakao-laranja errituala:**
Erritual honen usainak sententziaz gogora ekarri eta emozioak pizten dituzte. Ondoren, gure azala leun, hidratatu eta oxigenatuz gainera, amasa ere hartuko du. Tratamendua egin ondoren distiratsua agertuko da. (Gorputzean nahiz aurpegian eman daitezke).

- **Menta-kakao errituala:**
Erritual distiratsua honen gure burua portu eta piztu egiten du, eta zentzumenak gatzte. Azala alaitu, aktibatu eta oxigenatuz gainera, amasa ere hartuko du. Tratamendua egin ondoren distiratsua agertuko da.

- **Spa delikatessen tratamendua: Kuartzo arrosen egindako harmonizazio energetikoa:**
Gorputz tratamendu horrek gorputza eta burua erlatzaten lagunduko ditu. KUARTZO ARROSEN EZAUGARRIAK: erlatzatu, oxigenatu, energia eman, azalaren hidratazioa ahalbidetu eta zirkulazio energetikoa eragiten dute.

ERDITZE ONDOKO TRATAMENDUAK

- SENAR-EMAZTEGAINDAKO TRATAMENDUAK

- LUXUZKO TRATAMENDUAK:
Aurpegiak
Gorputzekoak.



GIMNASIOA

Gure zentzoi baina egindako ibilidea amaitzeko, bigarren solaiaren dagoen gimnasioa nabarmendu nahi dugu bereziki. Gimnasio biki hau lan pertsonala eta errehabilitazioa egiteko prestatu dago. Bertan hainbat makina daude, eta aldagaitan banakako amariak.



ERABILERA ANITZEKO GUNEA

Horma bereilerik ez duen gela horretan taldeentzako nutrizio-hezikuntza eta gorputza lantzeko banakako nahiz taldeko klaseak, erlaxazio-terapiak, etab. eskaintzako ditugu. Sotoan dago gela.



xalok

CENTRO ESTETICO DEPORTIVO Y NUTRICIONAL

XALOK S.L
CIF: B71072003
Tel. 948 460 993 / 661 541 431
Burundabide 14 Etxarri Aranatz 31820

www.xalok.es

erabilera anitzeko gunea

kontsultagunea

estetikagunea

gimnasioa

Diseñu grafikoa Inprenta Katalogo digitalak



aldizkariak - liburuak
folletoak - katalogoak


Ofizinako paper guztiak
gutun orriak

txartelak
sobreak
publizitatea
kartelak
albaranak
boletoak



T.: 948 461 102
Pol. Ind Zumurdiñeta
31820 Etxarri Aranatz
sdi00001@terra.es

www.imprentasdi.com



MARINELETXE
HARATEGI

948 46 19 80
636 70 74 88

Larrañeta Kalea 6
Etxarri Aranatz

 **ganuza**

Sukaldeko
altzairu
lantegia

Esposaketa
Salmenta
Bainuko altzariak
Etxetresna

c.ganuza@terra.es

Tel: 948 46 02 03
Fax: 948 46 0 673
Etxarriko Industrialdea
ETXARRI ARANATZ


kaxeta
LIBURUDENDA

*Zorionak Etxarri!
Beste 700 baietz!*

Larrañeta 19 - Etxarri Aranatz
948460477 - www.kaxeta.net



MALKORRAMENDI
carpinteria zurgindegia muebles altzariak

T: 948 460 133
M: 679 974 875
F: 948 461 743




Borda
restaurante · jatetxea

*Zure ezkontzarako
eta ospakizunetarako
tokirik egokiena*



948 460 545

www.bordajatetxea.com



ETXARRI
2012

M.^a Dolores
Urquijo L. de Sabando

CONFECCIONES



Tel.: 948 46 01 32
31820 ECHARRI-ARANAZ
Navarra

JAMSAR S.L.

PROMOCION

Sustapena

CONSTRUCCION

Eraikuntza

REHABILITACION

Birgaikuntza

948 460 254

www.construccionesjamsar.com

C/ NAGUSIA, 15 Atico
ETXARRI ARANATZ



948 460 162

ETXARRI
ARANATZ

Aseguruak
prezio
hoberenean



Agentzia Bakarra

Allianz 
Aseguruak

**HNOS. SAYAS
MAZQUIARAN S.L.**

948 111 411 · Larrañeta 19 behea · ETXARRI ARANATZ

FOTO

Argazkari

Hualde, 11


ETXARRI-ARANATZ

HOSTO
OLSOH

GORRI

altzariak
eta
kortinak

T f n o : 9 4 8 4 6 0 3 5 9



navarra • 31820 **etxarri aranatz** • nafarroa
tel-fax 948 460 537

ULTRAMARINOS
RAZKIN

948 46 01 09


**ALDAZ
ARRAINDEGIA**

**ZORIONAK
ETXARRI!**



Maia
ileapaindegia

tel. 948 567 071
Kale Nagusia 49
ETXARRI ARANATZ



COVIRAN

**MAXUN
JANARIDENDA**

Zugarreta kalea 20
ETXARRI ARANATZ

948 461543

**CASA
LETE**

C/Ugalde, 14
31820 Etxarri-Aranaz
(Navarra)
Tfno. 948-460137



**LARRAZA
ARDOAK**

948 460 014
Zugarreta 2
Etxarri-Aranatz

**LEGARBEKO
KARAKOLAK**



31820 ETXARRI ARANATZ
e-mail: legarbe3@hotmail.com


M.: 649 442 741
T.: 948 460 215



ETXARRI KOMERTZIALA
altzari eta sukaldeak
www.comercialetxarri.com



Ctra. Beasain, s/n. 31820 Etxarri Aranatz (Navarra)
Tel :948460021 • Fax:948461621



CONSTRUCCIONES

Igoa y Garcandía, s.L.


Pedro: 619 71 86 31
Txomin: 669 75 91 82
Tel./Fax: 948 46 20 10

Zugarreta, 73

31820 ETXARRI-ARANATZ



Industrias Otxagabia
ASERRADERO Y EMBALAJE A MEDIDA



Tel.: 948 46 07 35
Fax: 948 46 16 73
Móvil: 630 47 47 86
jotxagabia@yahoo.es

Basoko kale, 7
31820 ETXARRI ARANATZ

LEGARB
ERAIKUNTZAK **E** S.L.

**Etxebizitzak salgai.
Eraikuntzak orokorrean**

LEGARBE ERAIKUNTZAK, S.L. - Zugarreta kalea 26 Bajua, 31820 ETXARRI ARANATZ
T.: 629 420515 - 948 461 075

Gruas



Asier Aldasoro Sukia

Tfnoa: 948 461 734

Dos Hermanas, 34
31860 IRURTZUN (Na)

696 999 128

608 883 383

www.baizamotor.com
gruasbaiza@gmail.com

LEKU ONA taberna

**izendu
ginen, ga
eta izenen ga**



Etxarri Aranatz



Asier Aldasoro Sukia

Autoen Mantenimendua
Basogintza Lorezaintza eta
Nekazaritzako makinak

Tfnoa: 948 461 734

Burundabide, 5
31820 ETXARRI-ARANATZ (Na)

STIHL

VIKING
our power, your passion

YANMAR
**RAJADORAS
B3**

iRobot
Roomba
KIVA



www.baizamotor.com
baizamotor1@gmail.com



Amaia Benjumea

Lizardi
Eстетika Zentroa

649 444 018

Kale Nagusia 12, 1. Ezk. • Etxarri Aranatz

**Urritik hasita...
helbide berria!**

Kale Nagusia 12, 1. Ezkerra
Udaletxearen ondoan

Gure zerbitzuak:

- Gorputzeko eta aurpegiko tratamenduak
- Depilazioak eta laser depilazioak
- Manikura eta manikura iraunkorra
- Aurpegiko garbiketak
- Makillajeak
- Lipobelt Laserra



garagardo naturalak
pitzak
eguneko menua
plater konbinatuak
hanburgesak
katerin zerbitzua

948 461 703



LARRAZA

TABERNA

BESTE 700 BAIETZ!

948 460 604

NAGUSIA, 23 - ETXARRI ARANATZ

**Beleixe
eta Guaixe
arriskuan**

- Beleixeguaixe txartela lortuko duzu
- 70 komertzio baino gehiagotan deskontuak izango dituzu
- Errenta aitortpenean % 25 desgrabatuko duzu (12,50€ itzuliko dizkizute)



Egin zaituz
bazkide 50 €

Deitu **948 562 107 / 948 564 275**
edo sartu **www.guaixe.net-en**

 HORTZ KLINIKA
Etxarri

ODONTOLOGIA GENERALA
INPLANTOLOGIA
PADI

hemen gaude, urte askotarako!
eskatu zure hitzordua

948460135


Igoa
arraindegia

948 460 111 · Arkuetabide kalea · Etxarri Arantz



**Eskerrik asko
Etxarri!**



• coral de Etxarri Arantz
Etxarri Arantzko abesbatza



948 460 111 · Arkuetabide kalea · Etxarri Arantz